



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko ekainaren 9a

58. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, hizkuntzaren arloko politika orokorrari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Stockholm Programaren kariatara Diputatuen Kongresuak aho batez onetsitako mozioa. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarrekin aurkeztu dute (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu euskalduneko errepideetako xafren errotulazio elebiduna dela-eta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak xedatzen duena bete dezan, gehienez ere hilabeteko epean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Txantreako Axular ikastetxea Buztintxuriko ikastetxe publikora eramateko prozesua geldiaraz dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxe bateratuen, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta helduen hezkuntzako ikastetxeen prestakuntza planarekin jarrai dezan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosan eta inguruko herrietan txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosa eta Sartaguda lotzen dituen NA-6221 errepidea zabalteko trazadura alda dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko ituna bete dezan eta Nafarroako ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jardueretarako kontusaila handitu dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da paisaiaren aldetik duten interesegatik babestu beharreko mahastien katalogoa egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarraitutasuna eman diezaion Ikastetxe Bate-ratuen Prestakuntza Planari, erantzun zehatzak ematen baitizkie langileen prestakuntza arloko beharri-za-nei. Mozioa Erretiratzea (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, Bakearen Aldeko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batza-rak onetsia (17. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, jakiteko ea Hezkuntzako kontseilaria bat datorren NUPen medikuntzako ikasketak jartzeko behar-rekin, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (18. or.).
- Galdera, Bigarren Hezkuntzako irakasleen lanpostuak antolatu, sortu eta betetzeari dagokionez Hezkuntza Departamentuak aurreikusitako jarduketari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (19. or.).
- Galdera, Infanta Elena zentroaren esleipen-hartzaile berriei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (19. or.).
- Galdera, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuan Nafarroan lan egiten duten pertsonen 2008an eta 2009an eskainitako ikastaroen buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Pirinioetako Autobiaren eta Zangozaren arteko lotunaren behin betiko trazadurari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jarduketarik aurreikusi duen Ledeko biribilgunetik Zangozako azpiestazio elektrikora doan bideunerako, Maiorga Ramírez Erro jau-nak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko ea asmorik dagoen Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzua handitzeko, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (22. or.).
- Galdera, jakiteko ea nork artatzen dituen larrialdiak Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntza-ko zerbitzuan, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (22. or.).
- Galdera, jakiteko ea zergatik ez dagoen pertsianarik Zangozako osasun etxeko leihoetan, Maiorga Ramí-rez Erro jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Zangozako osasun etxeko zerbitzuei eta espezializazioei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (23. or.).
- Galdera, jakiteko zer jarduera aurreikusi dituen Hezkuntza Departamentuak Bigarren Hezkuntzako psiko-pedagogia espezialitateko irakasleen lanpostuak antolatu, sortu eta betetzeari dagokionez, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (24. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik, ikerketa soziolinguistikoa egin ondoren, Nafarroako Gobernuak ez ote duen sustatzen Euskarari buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege proiekturik, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (24. or.).
- Galdera, jakiteko noiz eta zer modutan beteko duen Nafarroako Gobernuak Auzitegi Gorenak emandako epaia, zeinaren bidez Nafarroako Foru Administrazioetan euskararen erabilera arautzen duen 29/2003 Foru Dekretuaren lau artikulua-atal baliogabetzen baitira, Paula Kasares Corrales andreak egina (25. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroari buruz hedabideetan agertzen diren berrien jarraipena egiteko zerbitzuaren kontratazioa. Lizita-zio iragarkia (26. or.).
- Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen artean transkriptore lanerako prestatu eta trebatzeko hautapen probak egiteko deialdia. Gainditu dutenen zerrenda (27. or.).
- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. Lekualdatze lehiaketa bete gabe gelditu da (27. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**1.** Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena**

#### ZIOEN AZALPENA

Konstituzioko 49. artikulua araber, "botere publikoek aurreikuspen, tratamendu, errehabilitazio eta gizarteratze politika egiten dute gutxitu fisiko, sensorial eta psikikoei dagokienez; beharrezkoa duten laguntza espezializatua emanen diete eta bereziki babestuko dituzte titulu honek herritarrei ematen dizkien eskubideak gozatu ahal izan ditzaten"

Lan egiteko moduan dagoen pertsona orok izan behar du aukera enplegu egoki eta kalitatezko bat lortzeko, berdintasun osoz eta inolako bazterketarik gabe. Ez bakarrik bere bizibidea ziurtatzeko, bai eta enplegua gizarte-integrazioarako faktore oso graantzitsua delako ere.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen taldeak zailtasun bereziak ditu enplegua lortu ahal izateko. Egoera horrek Administrazioaren eta, oro har, gizartearen inplikazioa eskatzen du. Botere publikoek beharrezkoak diren neurri eta tresnak sortu eta finantzatzeko betebeharra dute, bermatzeko talde horrek berdintasun baldintzetan lan egiteko duen eskubidea balia dezan.

Ezinduen Gizarteratzeari buruzko 41.1 artikuluan ondokoa xedatzen da: "ezgaitasunen bat duten pertsonak, ezgaitasunaren izaera edo ondorioak direla-eta, ezin badute ohiko baldintzetan lan egin, aldi baterako edo behin betikoz, enplegu zentro berezietan enplegatuko dira..."

Lege beraren 42.1 artikuluan enplegu zentro berezien definizioa ematen da: "Helburu nagusia lan produktiboa egitea da, merkatuko eragiketetan erregulariki parte hartuz, azken xedea delarik bere langileei diruz ordainduriko lanpostu bat ematea bere langile ezinduei berauek behar dituzten doitzere-zerbitzuak, direla pertsonalak, direla sozialak, ematea; halaber, ahalik eta ezindu gehien lan mundu normalean txertatzeko balioko du."

Gaur egun, enplegu zentro bereziak enplegu babestua sortzeko tresna oso garrantzitsua dira; izan ere, ezgaitasunen bat duten 1.300 pertsonak egiten dute lan Nafarroan dauden 16 enplegu zentro berezietan. Halaber, gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden 130 pertsonak egiten dute lan gizarteratzeko eta laneratzeko 12 zentroan.

Hala ere, gaur egungo egoera ekonomikoaren ondorioz, ezgaitasunen bat duten pertsonen enplegua suntsitzen ari da Nafarroan, eta, pertsona horiek, langabeziko laguntzak eska baditzaquete

ere, etxean geratuko dira, zalantzan jarriz urteetan eginiko lan soziala. Horretaz gain, aipatu behar da, baita ere, buruko nahaste larriagatiko ezgaitasunak dituzten pertsonen egoera; izan ere, talde hori bereziki ahula da beren errehabilitazio- eta integrazio-prozesuan izan daitekeen edozein aldaketaren aurrean eta, ziurrenik, desoreka egoerak areagotu ginen dira talde horren barruan.

Foru Administrazioak arindu dezake neurri batean talde hori jasaten ari den enplegu-suntsiketa, zentro horiek hobetuz eta lagunduz, gaur egun indarrean dauden dirulaguntzen bidez, eta, halaber, beharrezkoak diren legegintza-neurriak prestatuz, enpresa horietako enplegua mantendu eta hobetzeko.

Horretarako, Nafarroako Kontratu Publikoek buruzko Legeren 9. artikulua ezartzen du administrazio publikoek kontratu publikoen % 20 arte erreserbatu ahalko dutela izaera sozialeko entitateentzat. Hala ere, artikulua hori ez da inoiz ere bete, hein batean, hori ez delako nahitaezkoa; izan ere, xedapen horren aplikazioa lege hori aplikatzen zaien entitate publiko desberdinen borondatearen arabera da.

9. artikulua idazketa berri batek, entitate publikoek hura betetzeko betebeharra izan dezaten, aukera emanen luke Nafarroako enplegu zentro berezien eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroen egonkortasuna eta enplegua ziurtatzeko.

Foru lege honek ahalbidetzen du esleitutako kontratuen erreserbaren errealitatera gehiago hur-

biltzen den ehuneko bat ezartzea; hala, esleitutako kontratuen zenbatekoaren % 6aren erreserba, gutxienez, finkatzen du.

#### **Artikulu bakarra.**

Nafarroako Kontratu Publikoek buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua idazketa berria ezartzen da. Hona hemen testua:

“9. artikulua. Izaera sozialeko entitateentzat kontratuak erreserbatzea.

1. Foru legearen menpeko entitateek kontratu-adjudikaziorako prozeduretan parte hartzeko aukera erreserbatuko diete irabazi asmorik gabeko enplegu zentro bereziei eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroeiei, edo kontratuen exekuzioa zenbait enpresarentzat gordeko dute enplegu babestuko programen esparruan, ukitutako langile gehienek ezgaitasunen bat izan eta, beren ezgaitasun motagatik edo larritasunagatik, ohiko lanbide jarduerak egiteko modurik ez dutenean.

2. Erreserbatzen diren kontratuen zenbatekoa, gutxienez, aurreko aurrekontu-ekitaldian esleitutako kontratuen zenbatekoaren 100eko 6 izanen da.

3. Erreserbatzen diren kontratuen lizitazioari buruzko iragarkietan aipatu egin beharko da honako xedapen hau.”

#### **Azken xedapena.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, hizkuntzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkezturiko jabeldura, hizkuntzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

**2.** Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **JABELDURAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, hizkuntza politikari buruzko honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioak:

Euskarabidearen sorrerak aire berriak ekarri zituen, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariaren azalduetako asmoen arabera, esan baitzuen erakunde hori baliagarria izanen zela euskara gure erkidegoan normalizatzeko. Horretarako, erakunde horren jardura plan bat aurkeztu zuen. Plan horretan zenbait jardura aurreikusten ziren, epe laburrean, ertainean eta luzean egitekoak.

Horien artean, nabarmentzekoa da Adituen Batzordearen gomendioak betetzeko asmoa; batez ere, hedabideei buruzko gomendioak, euskara administrazio publikoan erabiltzeari buruzkoak, foru dekretu berri bat eginez, Lanbide Heziketako euskarazko eskaintzari buruzkoak, bide-seinaleei buruzkoak eta abar.

Halaber, proposatu zuen inkesta soziolinguistiko bat egitea, 2008ko abenduaren 31rako amaitu eta aurkeztu behar zena.

Hala ere, gaur egun errealitatea ez da Nafarroako Gobernuak esan zuen modukoa. Alde batetik, aipatu behar dira Euskarabideko 2008ko eta 2009ko aurrekontuetan izandako murrizketak (% 30 baino gehiago), bereziki euskara sustatzeko eta garatzeko kontusailetan –hedabideak, toki entitateentzako laguntzak euskara sustatzeko programetarako, eta helduen alfabetatzea–, eta, bestetik, arestian aipatu konpromisoak ez betetzea.

Ondorioz, ez dugu ikusten kontseilariak legegintzaldi hasierako agerraldian aipatu zuen bultzada irmoa gure erkidegoan euskara normalizatzeko.

Hori dela eta, parlamentari honek jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Foru Komunitatean gauzatzen ari den eta gauzatuko duen hizkuntza alorreko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Luisa Mangado Cortes

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Stockholm Programaren karietara Diputatuen Kongresuak aho batez onetsitako mozioa.**

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK, SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK ETA CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu Stockholm Programaren karietara Diputatuen Kongresuak aho batez onetsitako mozioa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Carlos García Adanero, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Roberto Jiménez Allik eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteko Juan Cruz Alli Aranguren ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

2008ko azaroaren 13an, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak, Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren zuzendari nagusiaren bitartez, modu ofizialean adierazi zion Familiaren eta Haurren Zuzendari Nagusien Autonomien arteko Batzordeari helduen laguntzarik gabeko hamar haur atzerritar, Kanarietako Autonomia Erkidegotik heldu direnak, Nafarroako Foru Komunitatean berriz hartzeko asmoa dagoe-la, 2007an eta 2008an garatu zen programa errepikatuta. Autonomia erkidego horrek berriz ere joa zuen alarma-oihua, adingabeak etengabe ari zaizkielako heltzen txaneletan eta haien harrera-ahalmenak goia jo duelako. Kasuko ministerioei eskatu

zien politika integral eta antolatu bat balia zezaten, Saharaz hegoaldeko herrialdeetako adingabeen esportazioaren arazo larriari aurre egite aldera, haien bizia arriskuan jartzen baitu inondik ere.

Espainiako Gobernuaren erantzuna izan zen autonomia erkidegoei transferitutako eskumena dela adingabeen babesarena, eta, egin beharreko esku-hartzeak babestuko zituen arren, Kanarietako Autonomia Erkidegoaren esku uzten zuela gai-nontzeko autonomia erkidegoekin adingabeen banaketa eta harrera adosteko ardura; hartara, 15 milioi euro eman dizkio Kanarietako Autonomia Erkidegoari, adingabeak autonomia erkidegoetara eramateko eta haietan artatzeko gastuei aurre egite aldera.

2008ko abenduaren 3an, Lan eta Immigrazio-ministro Celestino Corbacho Chaves jaunak eta Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kiroleko ministro Mercedes Cabrera Calvo-Sotelo andreak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten Kanarietako Autonomia Erkidegoko Gobernuarekin; horren bidez, nabarmen aldatu zen helduen laguntzarik gabeko haur atzerritarrak hartzeko programari dagokionez ordura arte baliatutako prozedura, 2006aren amaiera aldean abiatu zena, eta ez zieten jaramonik egin autonomia erkidego askok eginiko ohartarazpenei, eta are jarritako eragozpenei ere, haien artean, Estatua albo batera utzita, gisa horretako hitzarmen bat ezartzeko gaitasunari dagokionez.

Aipatu hitzarmena betetzeko trabak luze gabe heldu ziren. Kanarietako Autonomia Erkidegoko Gobernuko zerbitzu juridikoek era guztietako eragozpen tekniko eta juridikoak jarri dituzte adingabe horiek beste autonomia erkidego batzuetara eramateko eta haien tutoretza harrerako autonomia erkidegoari, dagokion zuzkidura ekonomiko eta guzti, transferitzeko orduan.

Oraindik ez da aurkitu formula tekniko bat adingabeen joan-etorrietarako eta haien tutoretza transferitzeko, nahiz eta autonomien arteko bilera ugari egin. Bilera horietan beti egon da Foru Komunitatea, Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren zuzendari nagusiak ordezkaturak. Bilerak Kanarietako Autonomia Erkidegoan berean (2009ko urtarrilaren 23an) nahiz Madrilan (urtarrilaren 21ean, martxoaren 3an eta apirilaren 2an)

egin dira. Azken bilera horretan, eta egoeraz jabetuta, Familiaren, Haurraren eta Kontsumoaren zuzendari nagusiak hasierako prozedurara itzultzea eskatu zien inplikaturako ministerioei, albo batera utzita joan-etorriak Kanarien eta harrerako erkidegoaren esku uzten zituen administrazio-prozedura, eta Estatuko Administrazio Zentralak bere gain hartuta horien koordinazioa, jarraipena eta finantzaketa. Proposamenari ezezko borobila eman zitzaion. Agerikoa da, orobat, Estatuko zerbitzu juridikoen eta Kanarietako Autonomia Erkidegoko zerbitzu juridikoen arteko desadostasuna.

Hitzarmena 2008ko abenduaren 3an sinatu zenez geroztik, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentua harremanetan egon da etengabe Kanarietako Autonomia Erkidegoko bere homologoarekin, bestelako formula batzuk bilatzen, baina oraindik ez da behar adina berme duen prozedurarik, adingabeak haien tutoretza eta guzti hartzeko eta hori dena finantzatzeko, eta, horrenbestez, adingabeak ezin izan dira Nafarroara etorri.

Diputatuen Kongresuak, berriz, ondoko mozioa onetsi zuen 2009ko maiatzaren 19an.

“1. Egin beharreko zuzemenak egitea, hurrengo Stockholm Programan –Hagakoa ordeztu du, eta Europar Batasunaren lehentasunak jasotzen ditu askatasunaren, segurtasunaren eta justiziaren arloan– ebazpen bat jaso dadin, helduen laguntzarik gabeko haur etorkinen egoera Europar Batasunarentzat lehentasun handikoa izate aldera.

2. Protokolo bat ezartzea, Kanarietako Autonomia Erkidegoko Gobernuarekiko elkartasun eta lankidetzaren baitan, aukera berriak ireki ahal izate aldera helduen laguntzarik gabeko haur etorkinen etorrerak eragindako egoera berezi edo salbuespenekoei aurre egiteko, haienganako laguntza hobetzeko erantzun koordinatua ziurtatzea helburu.

3. Gobernu Zentrala eta autonomia erkidegoetako gobernuak koordinatzeko tresnak ezartzea, beste autonomia erkidego batzuetako barnetegi-tatik datozen etorkinen etorrera behar bezala egiten dela ziurtatzeko, kontuan hartuta harrerako zein diren autonomia erkidegoak dituen baliabideak. Politika horrek bereziki eraginen dio helduen laguntzarik gabeko haurren harrerari, Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak eskatzen duenari jarraikiz haurraren interesa aldeztarren.

4. Garapenerako lankidetzaren inplikazioa indartzea Afrikako kontinentean; hartara, lankide-

tzara eta garapenera bideratutako funtsak areagotuko dira –halako moduz non hango biztanleei enplegu duina lortzeko aukera gehiago emanen zaien eta emigratzeko gaur egun duten premia larria gutxituko den–, haien produktuen merkaturatzea erraztuko da, haien zorra arinduko da, demokraziaren finkatzean sakonduko da eta haien garapena sustatuko da, halatan giza baliabideen galera ekiditeko. Herrialde horietako adingabeentzako zentroak jarriko dira abian haien babesa ziurtatze aldera, eta, horretarako, garapenera bideratuko da gure aurrekontuaren zati bat.

Adingabe horiek beren familiekin jaioterrian beriz biltzea sustatzea, edo haien herrialdeetako erakunde nazionalen tutoretzapean jartzea.”

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du, oso-osorik, zioen azalpenean aipatzen den mozioa, Diputatuen Kongresuan aurkeztu eta aho batez onetsia.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuarekin premiatzen du arlo horretako eskumena duten ministerioek –Osasun eta Gizarte Politikakoa eta Lan eta Immigraziokoa– bere gain har dezaten helduen laguntzarik gabeko haur etorkinen immigrazioaren eta laguntzaren arloan dagokien arduraren eta Kanarietako Erkidegoari laguntza eraginkorra eman diezaioten adingabe horiek penintsulara ekartzeko; hartara, berreskuratutako beharreko eskumenak berreskuratutako dituzten, Kanarietako Erkidegoak eta gainontzeko autonomia erkidegoek jarri dituzten eragozpen tekniko eta juridikoak gainditzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuarekin premiatzen du immigrazio arloko politika integral bat balia dezan, baita adingabeen immigrazio arloan ere, eta amaiera eman diezaioten Kanarietara etorkinak samaldaka etortzeak dakarren genozidioari, gero eta gehiago baitira txaneletan datozen adingabeak, eta gero eta handiagoa, orobat, hildakoen kopurua. (Kanarietako Autonomia Erkidegoko Gobernuak emandako datuen arabera, 6.000 pertsonatik gora hil dira azken bost urteetan itsasaldietan, eta ez dakite horietako zenbat ziren adingabeak).

Iruñean, 2009ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentariak: Carlos García Adanero, Roberto Jiménez Alli eta Juan Cruz Alli Aranguren

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu euskalduneko errepideetako xafren errotulazio elebiduna dela-eta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak xedatzen duena bete dezan, gehienez ere hilabeteko epean.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eremu euskalduneko errepideetako xafren errotulazio elebiduna dela-eta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak xedatzen duena bete dezan, gehienez ere hilabeteko epean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Euskarari buruzko abenduaren 18ko 18/1986 Foru Legeko 2. artikulua hala dio:

1. Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute jakin eta erabiltzeko eskubidea.

2. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Baita euskara ere Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan eta Foru Lege honetakoetan aurrikusitako eran.

Euskarari buruzko abenduaren 18ko 18/1986 Foru Lege Orokorreko 3. artikuluko 1. eta 2. idatzizatiek hala diote:

1. Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte herritarrak ez daitezen hizkuntzategatik baztertuak izan.

2. Botere publikoek hizkuntz araua errespetatuak dute, foru lege honetan xedatutakoa eta hura garatzen duten xedapenen ondorio diren jarduketan.

Hauek dira Euskarabideak darabiltzan irizpideak eremu euskalduneko errotulazioari dagokionez: errotulazio elebiduna, euskaraz eta gaztelaniaz, biek ezaugarri berdinak dituztela.

NA-170 errepidean, Elgorriagako bainuetxe berriaren parean, Nafarroako Gobernuak bi xafra paratu ditu errepidean, norabide banatan, baina xafra horiek ez dituzte betetzen arestian aipatutako arauak. Bainuetxeko sarrera adierazten duten xafra horien errotulazioa gaztelania hutsean idatzita dago.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5. artikulua arabera, Elgorriaga eremu euskaldunaren barruan dago.

Kontuan hartuta arestian aipatutako arauak ez direla bete, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere hilabeteko epean eremu euskalduneko errepideetako xafren errotulazio elebiduna dela-eta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak xedatzen duena eta Euskarabideren irizpideak bete ditzan eta errepideetako xafren errotulazioa zuzen dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da Txantreako Axular ikastetxea Buztintxuriko ikastetxe publikora eramateko prozesua geldiaraz dezan.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita Txantreako Axular ikastetxea Buztintxuriko ikastetxe publikora eramateko prozesua geldiaraz dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak

Duela bi urte, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Txantreako Arturo Campión ikastetxera egindako bisitan, egiaztatu ahal izan genuen aipatu ikastetxeko azpiegituren egoera txarra. Ikastetxeko zuzendaritza taldearekin eta gurasoen elkartearekin eginiko bileran, beren eskaeren berri eman ziguten; izan ere, eraikina bota eta berria egin artean langile guztiak beste ikastetxe batera eramateko eskatu zuten, obrak zirela-eta jasan beharko zituzten zarata eta hautsaren ondoriozko eragozpenak ekidite aldera. Hain zuzen, berriki eraiki den Ezkabako Doña Mayor ikastetxera eraman zituzten eskatu zuten, ikasleei etxetik gertu geratzen baitzaie.

Hezkuntza Departamentuak erantzun zien hori ezinezkoa zela; besteak beste, lanak faseka egin behar zituztelako, eta beharrezkoak ziren modulu aurrefabrikatuak jarriko zituztela patioan.

Harrezkero bi urte iragan dira eta egitasmoa aldatu egin da. Izan ere, Campión eta Axular ikastetxeak bota eginen dituzte eta biak hartuko dituen eraikin berria eginen da. Hori dela eta, bi ikastetxe horietako hezkuntza-komunitatea Buztintxurira eramatea erabaki da.

Egitasmoa aldatzearen arrazoia izan da Hezkuntza Departamentuak Axular ikastetxearen egoeri buruz omen duen txosten teknikoak.

Neurria harriduraz hartu du Axular ikastetxeko gurasoen elkarteak, eta hari erantzuteko txostena behin eta berriro eskatu ostean, erantzun izan zaie txostenik ez dagoela eta prest dagoenean jakinaraziko zaiela. Martxoaren 26an esan zieten ikastetxearen egoerari buruzko txostena egina zegoela, eta, azkenik, apirilean jakinarazi zitzaizen ekainaren 25erako Buztintxurira joan "beharko" zutela.

Parlamentuan eginiko lan bilera batean, ikastetxeko gurasoen elkarteak esan zuten beren ideiak ere kontuan hartuko dituen behin betiko proiektu bat egon arte hilabeteak iragan daitezkeela, eta horren ondorioz ikasleek denbora luzez egon beharko dutela Buztintxurira, horretarako beharrik gabe, horrek dakartzan arazoekin, orain arte behar ez zituzten garraioa eta jantokia erabili beharko baitituzte.

Hori dela eta, gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du Txantreako Axular ikastetxea Buztintxuriko ikastetxe publikora eramateko prozesua geldiaraz dezan, ikastetxe berria eraikitzeko proiektua gauzatzen hasi arte.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxe bateratuen, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta helduen hezkuntzako ikastetxeen prestakuntza planarekin jarrai dezan.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ikastetxe bateratuen, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta helduen hezkuntzako ikastetxeen prestakuntza planarekin jarrai dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Azken hiru urteotan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kontusail bat aurreikusi du Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan eta arte eskoletan eskaintzen ziren langileentzako etengabeko prestakuntza ikastaroak finantzatzeko, eta emaitza oso ona izan da.

Iragan urteko amaieran, aipatu ikastetxe horiek, zenbait enpresa, entitate eta ikasle ohiren laguntzarekin, ekoizpen-sektore desberdinen azterketak egin zituzten, prestakuntza alorreko beharrianak hautemate aldera. Azterketa horren ondorioz, prestakuntza eskaintza adostu-hitzartua sortu zen, zeinak jasotzen baitzuen ikastetxeetan ematen diren lanbide-famailiekin zerikusia duten prestakuntza ekintzen sorta bat, 2009an zehar garatzeko.

Apirilean, gure egonezina agertu genion Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseiluari 2009rako aurrekontuetatik kontusail hori kentzearen ondorioz sorturiko arazoak direla-eta.

Uneoro ulertu genuen gure eskaria beste formularen baten bidez bideratuko zela, eta horregatik ez dugu plazaratu sortutako arazoa, baina Hezkuntza Departamentuko eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko arduradunekin izandako elkarrizketen arabera, eta kontuan hartuta zer garaitan gauden, uste dugu, tamalez, aurten ez zaiola etengabeko prestakuntzako ikastarorik esleituko sare publikoko Lanbide Heziketako ikastetxeei.

Lanbide Heziketako ikastetxe publikoek 2009rako aurkeztu duten eskaintza, honekin batera doan zerrendan ikus daitekeen bezala, espezializatuena da, Nafarroako lurralde osoa hartzen du eta Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeek daukaten ekipamendua erabilita emango lirakeke, eguneratuena baita gaur egun. Nafarroako enpresa-sektore desberdinei prestakuntza eskaintza bikain hori ukatzea, are gehiago pairatzen ari garen lan-egoera eta egoera ekonomikoan, ez da neurririk egokiena krisiari aurre egiteko. Une honetan, prestakuntza ezinbestekoa da gure ekoizpen-sistema bizkortzeko eta teknikarien espezializazioa indartzeko, egoera orokorra hobetzen denean sistema lehiakorra izan dadin.

Neurri horrek harridura handiagoa eragin du ikastetxe integratu politeknikoetan; izan ere, Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak arautzen dituen irailaren 4ko 63/2006 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, ikastetxe horien eginkizun oinarritzako bat da etengabeko heziketa ematea, bai eta eta langabe-tuentzako heziketa ere (orain enplegurako prestakuntza), langileen eta produkzio sektoreen eskariei egokitutako erantzunak emateko eta pertsonen ikaskuntza eta hobekuntza ahalbidetzeko biritza osoan zehar.

Gaiaren garrantzia kontuan hartuta, Nafarroako gizarte osoarengan baitu eragina, uste dugu Gobernuak lehendakariak berehala konpondu behar duela egoera hau. Gure aldetik, gure kezka adierazi dugu baita ere Parlamentuko Hezkuntza

Batzordean, egun hauetan Lanbide Heziketako ikastetxeetara eginiko bisitan.

Erabaki proposamena

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrai dezan ikastetxe integratuetako prestakuntza plana eskaintzen, erantzun egokia eman baitie langileen prestakuntza beharrei, bai eta enpresen eskakizunei ere.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ziurta dezan kasuan kasuko kontusaila ikastetxe integratuetako prestakuntza planari jarraipena emateko; izan ere, beharrezkoa

da ikastetxe horiek dituzten giza baliabideei eta baliabide materialei etekina ateratzea.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekainean aurkez dezan Lanbide Heziketako ikastetxeetako eta Helduen Hezikuntzako etengabeko prestakuntzari dagozkion ikastaroen eskaintza, ekimen horri jarraipena emateko eta irailetik abendura bitarteko hiruhilekoa behar bezala planifikatzeko.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosan eta inguruko herrietan txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lodosan eta inguruko herrietan txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lodosan eta inguruko herrietan txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan, Landa

Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordearen eztabaidatzeko eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Iragan maiatzaren 24an, txingor-ekaitz batek kalte ugari eragin zituen Lodosako eta inguruko herrietako landetan eta bertako biztanleen jabetza pribatuetan.

Ez da Legebiltzar honetan naturak eragindako hondamendiez hitz egiten dugun lehenengo aldia. Izan ere, parlamentu-talde sozialistak lege proposamen bat erregistratu zuen, eragindako kalteei orokorrean eta modu azkarrean erantzuteko, kontuan hartu gabe zer hondamendik eragin dituen edo non gertatu diren.

Hala ere, proposamen hura lege bihurtu arte, beharrezkoa da akordioak bultzatzea eta neurriak hartzea, mozio honen kausa den ekaitza bezalakoek eragindako kalteei erantzuteko.

Normala denez, administrazio publikoen koordinazioa ezinbestekoa da garaiz eta modu egokian iristeko dagokin kalteen zatia estaltzera, kasuan kasuko aseguruak ez badute estaltzen. Hala ere, lehendabizi kontuan hartu behar dugun kontua da herritarrek kotzientziaztea, halako egoerarako aseguruak izan ditzaten.

Koordinazio horri dagokionez, bai Tokiko Administrazioak, bai Foru Administrazioak, bai Estatuak ahalbidetuko dituzte halako gertakariak nekazaritzako ekoizpenean eta herritarren

etxebizitzetan eta jabetza pribatuetan eragiten dituzten kalteak arintzea lortzeko.

Hori guztia ikusirik, parlamentu-talde sozialistak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Lodosan eta inguruko herrietan txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan, orain arte erabiltzen zen hondamendi-eremuaren figuran oinarrituta, eta aurre egin diezaien nekazaritzako produktuetan eta herritarren etxebizitza eta jabetza pribatuetan eragindako kalteei.

2. Nafarroako Gobernuak hartutako erabakian oinarrituta, beharrezkoak diren ekimenak abian jar daitezzen, hitzartze aldera, bai Estatuko Administrazio Orokorrarekin –Nekazaritza Ministerioarekin edo Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin, nekazariei Nafarroako Ubidea erabiltzeagatik kobratzen zaien kanonari dagokionez–, bai Tokiko Administrazioarekin –kaltetutako eremuko landalur-kontribuzioari dagokionez–, egokituz jotzen diren neurri osagarri guztiak, ekaitzak nekazaritzako produktuetan eta herritarren etxebizitza eta jabetza pribatuetan eragindako kalteak arintze aldera.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosa eta Sartaguda lotzen dituen NA-6221 errepidea zabaltzeko trazadura alda dezan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lodosa eta Sartaguda lotzen dituen NA-6221 errepidea zabaltzeko trazadura alda dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan, eta, kasua bada, alda dezan Lodosa eta Sartaguda lotzen dituen NA-6221 errepidea zabaltzeko trazadura, zeina iragaten baita Oroimenaren Parkearen eta Sartagudako industrialdearen artean dagoen trazadura beretik.

Zioen azalpena

Lodosako saihebidetaren proiektua gauzatzearen ondorioz, Herri Lan Departamentuak Lodosa

eta Sartaguda lotzen dituen NA-6221 errepidea zabaltzeko asmoa du. Sartagudako Udalak, Parlamentuko Mahaiari igorritako idazki baten bidez, asmo horren aurkako jarrera agertu du.

Udalak adierazitakoaren arabera, aukera izan du Herri Lan kontseilariarekin, zuzendari nagusiarekin eta departamentuko zenbait teknikarirekin biltzeko eta bilera horietan guztietan azaldu du ez dagoela ados Herri Lan Departamentuak egin nahi duen trazadurarekin, bere ustez, arriskutsua izateaz gain, udalerraren etxebizitza- eta industria-garapena eragozten duelako.

Gure ustez, badira beste aukera batzuk, Sartagudaren interesentzat hain kaltegarriak ez direnak. Hori dela eta, ez dugu ulertzen zergatik ez diren entzun Sartagudako Udalaren arazoak eta zergatik ez den bilatu foru erkidegoaren interes orokorrekoak diren proiektuak mantentzeko eta garatzeko beharrezkoa den adostasuna, udalerrri jakin baten interesa –kasu honetan Sartaguda– kaltetu gabe.

Kasu honetan adostasuna bilatu eta lortze aldera, duela gutxi beste batzuetan bilatu eta lortu den modu berean, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrikus dezan, eta, kasua bada, alda dezan Lodosa eta Sartaguda lotzen dituen NA-6221 errepidea zabaltzeko trazadura, zeina iragaten baita Oroimenaren Parkearen eta Sartagudako industrialdearen artean dagoen trazadura beretik.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko ituna bete dezan eta Nafarroako ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jardueretarako kontusaila handitu dezan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko ituna bete dezan eta Nafarroako ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jardueretarako kontusaila handitu dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena

2007ko martxoaren 28an, Hezkuntza Departamentuak eta hezkuntza arloko mahai sektorialean ordezkariak duten sindikatuak Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko Ituna sinatu zuten.

Itunaren III. ataleko 2. puntuan hain zuzen, non hizpide hartzen baitira irakasleen lanaldia, egutegia eta ordutegia, honakoa ageri da:

2007-2008 ikasturtean, eta sindikatu sinatzaileen adostasunarekin, beharrezkoaren araudia garatuko da, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxei aukera emanen diena, proba gisa, duten autonomia pedagogikoa eta antolamendu-gaietako erabiliz, eskola-ordutegi malgua ezar dezaten, ikasleak bai goizean bai arratsaldean hartzeko

proiektu bati jarraituz (zerbitzu osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak). Horretarako, ikastetxean matrikulatutako ikasleen gurasoen gehiengo kualifikatua beharko da, berariaz eginiko bozketa batean adierazia, eta ikastetxeko Eskola Kontseiluaren erabakia.

Hezkuntza Departamentuak, aurrekoa helburu, konpromisoa hartu zuen handitu eginen zuela, akordioaren indarraldian, ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko aurrekontu-zuzkidura, eta lankidetzaz hitzarmenak sinatu zituela tokian tokiko entitate publiko eta pribatuekin, halako moduz non zerbitzu horiek bermatuta egonen ziren eskola-ordutegi malgu hori hautatzen zuten ikastetxeetan.

Etorkizunean eskola-ordutegi malgua baldintzarik onenetan ezarri ahal izan dadin, 2007-2008 ikasturtean eskaintza bat eginen da lau ikastetxetan modu esperimentalean jartzeko, ondoren ebaluazioa egiteko. Horretarako, ikastetxeko eskola kontseiluak proposatu beharko du, gurasoen gehiengoaren adostasunarekin, eta jarraipen batzordeak ikastetxeek aurkeztutako proiektuak aztertuko ditu.

Itunaren ondorioz, Nafarroako lau ikastetxek, Itunak ezarritako baldintzak gainditu ondoren, aukera izan zuten 2007-2008 ikasturtean lanaldi jarraitua ezartzeko.

Ezagunak dira ikastetxe horiek izan zituzten gorabeherak jarduera horiek abian jarri ahal izateko, baina, azkenean, ikastetxe horietako taldeek erakutsitako zentzuari eta tokiko entitateen eta entitate pribatuen laguntza ekonomikoari esker, aurrera jarraitu ahal izan zuten beren proiektuarekin. 2008ko aurrekontuetan, 100.000 euroko kontusaila onetsi zen, baina, azkenean, aurrekontuen murrizketaren ondorioz, 13.000 eurotan geratu zen.

2009ko aurrekontuetan, berriz, Nafarroako ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jardueretarako kontusaila 45.000 eurora mugatu zen, 2008ko 300.000 euroen aldean.

Kontusaila oso txikia zen, eta horren eraginez ikastetxeek ezin izan dituzte antolatu ikastetxeen bititza hainbeste aberasten duten jarduera osaga-

rriak. Baina, horretaz gain, lanaldi jarraitua duten ikastetxeek dirulaguntza horiek lortzeko deialdieta-tik kanpo geratu dira espresuki.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-a premiatzen du:

1) Nafarroako ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jardueretarako kontusaila handitu dezan.

2) Hezkuntza Departamentuak eta hezkuntza arloko mahai sektorialean ordezkariak duten sindikatuek sinatutako Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko Ituna bete dezan eskola-ordutegi malgua izatea hautatu duten ikastetxeetako eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko helburua duen kontusailan diru gehiago jartzeko konpromisoari dagokionez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu-a premiatzen da paisaiaren aldetik duten interesagatik babestu beharreko mahastien katalogoa egin dezan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu-a premiatzen baita paisaiaren aldetik duten interesagatik babestu beharreko mahastien katalogoa egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena

Ardoaren merkatuaren antolamendu komunak ahalbidetu du neurri asko ezartzea, besteak

beste, mahastizainek mahastiak utzi ahal izatea eta horren truke nekazariak zuzeneko kalteordaina jaso ahal izatea.

Gure erkidegoko ardoaren sektoreak une zeharo larria bizi du, batzuek egiturazko krisizat ere jotzen dutena. Sektorearen krisiaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak berak bultzatu du mahastiak kentzea, zenbait baldintza bete baino lehen.

Kontuan hartu behar da mahastiak kentzeagatik kalteordainek zerikusi handiagoa dutela nekazariaren egoerarekin mahastiaren egoera zehatzarekin baino.

PSNk erabateko ustea du sektoreak gaur egun bizi duen krisia koiunturazkoa dela, eta, sektorearen ahaleginak eta Administrazioaren jarduerak sektorea aurrera ateraraziko dutela, baina horrek ez du kentzen Nafarroako nekazari askok bat egitea mahastiak kentzeko eskariarekin.

Nekazariak mahastiak kentzeko duten eskubiak talka egin dezake foru erkidegoko kultur eta paisaia ondarearekin lotutako zenbait alderdirekin.

Gaur egun ez da zalantzan jartzen 80ko hamarkadan kendutako mahastien artean, garrantzia asko ere kendu zirela, jabeen beharriari jarraikiz, eta horrek galera garrantzitsua ekarri zuela foru erkidegoko mahastizaintza eta ardogintzari buruzko ondarearentzat, eta gaur egun horren damu gara.

Mahastizainek mahastiak kentzeko duten eskubidearen ondorioz ez daitezke gal interes kul-

tural eta paisajistikoa duten nahasiak, parlamentu-talde honek ondoko mozio aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan onesteko:

Erabaki proposamena:

Lehen. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du paisaiaren, historiaren edota kualitateen aldetik duten interesagatik babestu beharreko mahastien katalogoa egin dezan.

Bigarrena. Katalogoa egin ondoren, eta mahastiak kendu ez baizik iraun dezaten, Gobernuak mekanismoren bat ezarri beharko du mahasti hori babesteko, halako moduz non, mahastizainari mahastiak kentzeagatiko kalteordaina jasotzeko duen eskubidea kendu gabe, mahasti hori ez den kenduko.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarraitutasuna eman diezaion Ikastetxe Bateratuen Prestakuntza Planari, erantzun zehatzak ematen baitizkie langileen prestakuntza arloko beharrezanei.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarraitutasuna eman diezaion Ikastetxe Bateratuen Prestakuntza Plana-

ri, erantzun zehatzak ematen baitizkie langileen prestakuntza arloko beharrezanei". Mozio hori 2009ko maiatzaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



## **Adierazpen instituzionala, Bakearen Aldeko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Bakearen Aldeko Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin eta aitortzen du emakumeen bakearen eragile gisa duten eginkizunaren garrantzia.

2. Nafarroako Parlamentuak publikoki aitortzen du emakumezkoen zenbait erakundek egindako lana bake prozesuek aurrera egin dezaten; izan ere, elkartasun zubiak bilatzen dituzte, beren komunitateak borrokara eraman zituzten arrazoiak gaindituta.

3. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du publikoki salatzeke ezagutzen dituen emakumeen jazarpen kasu guztiak, emakumeak giza

eskubideen defentsarako antolatzeagatik gertatzen direnean.

4. Nafarroako Parlamentuak zainduko du Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren 1325. Ebazpena bete dadin eta hura betetze alde-ra zenbait ekintza jarriko ditu abian. Ebazpen horrek “berresten du emakumeek duten eginkizuna gatazkei aurrea hartu eta konponbidea bilatzeari eta bakea sendotzeari dagokienez, eta nabarmentzen du bakea eta segurtasuna sustatzeko ekimen guztietan erabateko eta berdintasunezko parte hartzeak duen garrantzia, bai eta gatazken prebentzioaren eta konponketaren arloan duten parte hartzea handitzeak ere”

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko ea Hezkuntzako kontseilaria bat datorren NUPen medikuntzako ikasketak jartzeko beharrarekin.***MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Hezkuntzako kontseilaria bat datorren NUPen medikuntzako ikasketak jartzeko beharrarekin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M<sup>a</sup> Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza kontseilari Carlos Pérez-Nievas jaunak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premi-

atzen baitzen azter zezan medikuntza ikasketak jartzea Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Aipatu unibertsitateak beharrezkoak ziren azterketak eginarazi zituen, eta bere garaian aurkeztu zituen Hezkuntza Batzordean. Azterlan horietan aipatzen ziren titulazio hori ezartzeko beharra, dauden baliabideak eta beharrezkoak diren langileak eta instalazioak, bai eta ezarpenak izanen lukeen kostu ekonomikoa ere.

Bere garaian, Osasun kontseilariak ikasketa horiek ezartzearen aldeko iritzia agertu zuen; aldiz, maiatzaren 25ean adierazi zuen hedabide batean "pentsaezina iruditzen zaiola Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza ikasketak ezartzea".

Hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Hezkuntza kontseilari bat al dator NUPen medikuntzako ikasketak jartzeko beharrarekin, Parlamentuko gehiengoak agertu bezala, bai eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak eginiko azterlanarekin ere?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, Bigarren Hezkuntzako irakasleen lanpostuak antolatu, sortu eta betetzeari dagokionez Hezkuntza Departamentuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Bigarren Hezkuntzako irakasleen lanpostuak antolatu, sortu eta betetzeari dagokionez Hezkuntza Departamentuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera

hau aurkeztu dio Hezkuntza kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan Hezkuntza Orientazioa arautzen duen maiatzaren 10eko 153/1999 Foru Dekretua 1999ko maiatzaren 31ko NAO n argitaratu zen, eta orientatzaile talde batek haren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen. Ondorioz, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak 2003ko abenduaren 15eko 190. epaia eman zuen, eta 2008ko urriaren 24an, epaitegi bereko epaileak epaia betetzeko autoa eman zuen.

Galderaren testua

Zer egin behar du Hezkuntza Departamentuak Bigarren Hezkuntzako irakasleen lanpostuak antolatu, sortu eta betetzeari dagokionez?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

## **Galdera, Infanta Elena zentroaren esleipen-hartzaile berriei buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Infanta Elena zentroaren esleipen-hartzaile berriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Aspace fundazioak 13 urte eman ondoren Infanta Elena egoitza kudeatzen, kudeaketa esleitzeko lehiaketa berria egin da eta Mapfre-Quavietae taldeari esleitu diote aipatu zentroaren kudeaketa.

Egunkarietan agertutako zenbait informaziok zalantzak agertzen ditu talde esleipen-hartzaileak

beste egoitza batzuetan eginiko kudeaketari buruz.

Galdera

Nafarroako Gobernuak ziurta al dezake Infanta Elena zentroaren kudeaketaren esleipen-hartzaile

berriek zerbitzuaren kalitatea eta lanaren kalitatea bermatuko dietela egoiliarrei eta langileei, hurrenez hurren?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

---

## **Galdera, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuan Nafarroan lan egiten duten pertsonen 2008an eta 2009an eskaintako ikastaroen buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuan Nafarroan lan egiten duten pertsonen 2008an eta 2009an eskaintako ikastaroen buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria, Justizia eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

NAPIko ikastaroen buruzko galdera.

Zenbat ikastaro eta zeintzuk eskaini zaizkie Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuan Nafarroan lan egiten duten pertsonen 2008an eta 2009an?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

---

## **Galdera, Pirinioetako Autobiaren eta Zangozaren arteko lotunearen behin betiko trazadurari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Pirinioetako Autobiaren eta Zangozaren arteko lotunearen behin betiko trazadurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein izanen da Pirinioetako Autobiaren eta Zangozaren arteko lotunearen behin betiko trazadura? Trazaduraren planoak jaso nahiko nituzke.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jarduketarik aurreikusi duen Ledeako biribilgunetik Zangozako azpiestazio elektrikorako doan bideunerako.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jarduketarik aurreikusi duen Ledeako biribilgunetik Zangozako azpiestazio elektrikorako doan bideunerako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jarduketarik aurreikusi al du Ledeako biribilgunetik Zangozako azpiestazio elektrikorako doan bideunerako?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, jakiteko ea asmorik dagoen Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzua handitzeko.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea asmorik dagoen Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzua handitzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Ba al dago asmorik Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzua handitzeko eta mediku gehiago jartzeko? Hala bada, jakin nahiko nuke zein izanen diren horretarako epeak, bai eta jarriko den profesionalen kopurua ere.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, jakiteko ea nork artatzen dituen larrialdiak Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuan.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea nork artatzen dituen larrialdiak Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuan, nork artatzen ditu larrialdiak ordutegi arruntean? Ba al da larrialdiak dedikazio eskusiboarekin artatzen dituen profesionalik?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, jakiteko ea zergatik ez dagoen pertsianarik Zangozako osasun etxeko leihoetan.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zergatik ez dagoen pertsianarik Zangozako osasun etxeko leihoetan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zergatik Zangozako osasun etxe inauguratu berriaren leihoek ez dute pertsianarik, halako moduz non gaixoak eta profesionalak eguzkitatik babesteko paper batzuk jarri behar izan baitituzte leihoetan?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Zangozako osasun etxeko zerbitzuei eta espezializazioei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Zangozako osasun etxeko zerbitzuei eta espezializazioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer zerbitzu eta espezialitate ditu Zangozan inauguratu berri den osasun etxeak? Zer ekipamendu ditu? Zenbat herritarrei emanen die zerbitzua osasun etxe horrek?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, jakiteko zer jarduera aurreikusi dituen Hezkuntza Departamentuak Bigarren Hezkuntzako psikopedagogia espezialitateko irakasleen lanpostuak antolatu, sortu eta betetzeari dagokionez.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer jarduera aurreikusi dituen Hezkuntza Departamentuak Bigarren Hezkuntzako psikopedagogia espezialitateko irakasleen lanpostuak antolatu, sortu eta betetzeari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu dio Hezkuntza kontseilariari, heldu den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan Hezkuntza Orientazioa arautzen duen maiatzaren 10eko 153/1999 Foru Dekretua 1999ko maiatzaren 31ko NAO-n argitaratu zen, eta orientatzaile talde batek haren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen. Ondorioz, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak 2003ko abenduaren 15eko 190. epaia eman zuen, eta 2008ko urriaren 24an, epaitegi bereko epaileak epaia betetzeko autoa eman zuen.

Galderaren testua

Zer egin behar du Hezkuntza Departamentuak Bigarren Hezkuntzako psikopedagogia espezialitateko irakasleen lanpostuak antolatu, sortu eta betetzeari dagokionez?

Iruñean, 2009ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

## **Galdera, jakiteko zergatik, ikerketa soziolinguistikoa egin ondoren, Nafarroako Gobernuak ez ote duen sustatzen Euskarari buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege proiekturik.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zergatik, ikerketa soziolinguistikoa egin ondoren, Nafarroako Gobernuak ez ote duen sus-

tatzen Euskarari buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege proiekturik.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako gaurkotasun handiko galdera hau egin du:

Zergatik erabaki du Nafarroako Gobernuak Euskarari buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege

proiekturik ez sustatzea, Hezkuntza Departamentuak ikerketa “serioa eta zorrotza” egin ondoren, ikerteta horren arabera agerian geratu bada Nafarroako eremu ez euskalduneko bederatzi udalerritako biztanleek eremu mistoan sartu nahi dutela?

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

---

**Galdera, jakiteko noiz eta zer modutan beteko duen Nafarroako Gobernuak Auzitegi Gorenak emandako epaia, zeinaren bidez Nafarroako Foru Administrazioetan euskararen erabilera arautzen duen 29/2003 Foru Dekretuaren lau artikulatu-atal baliogabetzen baitira.**

*PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko noiz eta zer modutan beteko duen Nafarroako Gobernuak Auzitegi Gorenak emandako epaia, zeinaren bidez Nafarroako Foru Administrazioetan euskararen erabilera arautzen duen 29/2003 Foru Dekretuaren lau artikulatu-atal baliogabetzen baitira.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Paula Kasaresek, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera hau egin nahi du Osoko Bilkuran gaurkotasun handiko Nafarroako Gobernuaren Presidente jaunak ahoz erantzun diezaion:

Ikusita Auzitegi Gorenak baliogabetu egin dituela Nafarroako Foru Administrazioetan euskararen erabilera arautzen duen 29/2003 Foru Dekretuaren lau artikulatu-atal funtsezko Euskararen Foru Legearen kontra jotzen zutelako, jakin nahi duguna honako hau da:

Noiz eta zer modutan beteko du Nafarroako Gobernuak epai hori?

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroari buruz hedabideetan agertzen diren berrien jarraipena egiteko zerbitzuaren kontratazioa.**

### **Lizitazio iragarkia**

#### **Iragarkiaren oinarrizko datuak**

- Deialdia egiten duena: NAFARROAKO PARLAMENTUA
- Kontratazio organoa: NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIA
- Mota: kontratua
- Kontratu mota: laguntzarako kontratua
- Prozedura: irekia
- Deskribapen laburra: Nafarroari buruz hedabideetan agertzen diren berrien jarraipena egiteko zerbitzuaren kontratazioa.
- Gutxi gorabeherako balioa, BEZa barne, luzapen eta edo aukera guztiak barne direla: 220.000 euro
- Parte hartzeko eskaerak edo eskaintzak aurkezteko epea: 2009ko ekainaren 9tik 2009ko ekainaren 26ra
- Epearen amaiera: 2009ko ekainaren 26an, eguerdiko 12:00etan
- Aurkezteko tokia: Nafarroako Parlamentua, Erregistro Orokorra (Navas de Tolosa, 1, Iruña).
- Iragarkiaren bidalketa-data: 2009/06/08

#### **Amaiera**

- Kontratuaren burutze-epea: 2010/09/06

#### **CPV kodeak**

- 92400000-5 Berri-agentzien zerbitzua.

#### **Luzapena**

- Gehienezko epea: urtebete, gehienez ere hiru urtez luzagarria.
- Oharrak: 2013ko irailaren 6ra arte luza daiteke.

#### **Harremanetarako pertsona**

- Izen-deiturak: Carlos J. Gil Martínez
- Posta elektronikoa: cgil@parlamento-navarra.es
- Telefonoa: 948 209 209

#### **Eskaintzak irekitzea**

- Helbidea: Nafarroako Parlamentua (Bilera Aretoa). Navas de Tolosa, 1, Iruña.
- PK: 31002
- Herria: IRUÑA
- Eguna eta ordua: 2009ko ekainaren 30ean, goizeko 10:00etan

---

Klausula administratiboen orria eskura dago Parlamentuaren webgunean ([www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)), 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean (Navas de Tolosa, 1 – Iruña).

## Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen artean transkriptore lanerako prestatu eta trebatzeko hautapen probak egiteko deialdia.

### Gainditu dutenen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen artean transkriptore lanerako prestatu eta trebatzeko hautapen probak egiteko deialdiko epaimahai kalifikatzaileak igorri du probak gainditu dituzten izangaien zerrenda. Deialdia 2009ko martxoaren 17ko Legelari Nagusiaren erabakiaren bidez onetsi zen. Aipatu zerrenda ikusirik eta deialdiko 6. oinarriarekin bat, ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea probak gainditu dituzten izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera:

Arizcuren Rey, M. <sup>a</sup> Ángeles	31,66 puntu
Urmeneta Marín, Olga	27,17 puntu

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko.

### Lekualdatze lehiaketa bete gabe gelditu da

Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 3. idatz-zatiak (2009ko apirilaren 24ko lehendakariaren ebazpenaren bidez onetsia) ezartzen du: "Ezarritako epean eskaerarik aurkezten ez bada, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da."

Eskaerak aurkezteko epea amaiturik, eta eskaerarik aurkeztu ezean, aipatu lekualdatze lehiaketa

ta bete gabe gelditu dela adierazi behar da. Hori dela eta, lehendakariak ERABAKI DU:

1. Adieraztea bete gabe gelditu dela Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia, pasa den apirilaren 24ko lehendakariaren ebazpenaren bidez onetsia.

2. Erabaki hau Nafarroako Aldizkarian eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

